

251. ZENBAKIA-AZPEITIKO HERRI ALDIZKARIA-2022KO UZTAILA

UZTARRIA



ZENBAKI HONEKIN BATERA
+ UDAKO GUKA
+ IKUSBERA

MEDIKU GABEZIA

HARI BATETIK ZINTZILIK



HORTZ KLINIKA

**BERTAKOAK,
PROFESIONALAK ETA
KONFIANTZAZKOAK**



Jose Artetxe 5
📞 943-02 59 55

MILAR LARRAMENDI



WHIRLPOOL
MIKROUHIN LABEA AMW 442



BIZITZA ERRAZTUKO DIZUN ETXETRESNA BERRIA

Julio Urkixa, 16 • AZKOITIA • 943-85 18 97 • www.milar.eus

ZURE LORATEGIRA EGOKITUKO DEN

atsedenleku freskagarria!

 **KIMUBAT**
— PAISIA

Urrestilla bidea z/g, Aspeltia
943 15 00 85 | iker@kimubat.eus



Informa zaituz konpromisorik gabe.

ABANTAILAK | Muntaketa eta kartzeko erraza - Erdi lurperatuta jaritzeko aukera - Aldapadun eremuatarako proposiak
Ez dute obra balmenik behar - Lorategirako altzari bezala erabili daitezke - 5 urteko garantia - Espazio bakoitzera egokitura
www.kimubat.eus



UZTARRIA

251 2022KO UZTAILA

AZALEKO ARGAZKIAREN EGILEA:

KRIS FERNANDEZ

Aurkibidea

- | | | | |
|----|--|----|---|
| 5 | Iritzia Julene Frantzesena, <i>Denak ez du balio.</i> | 27 | Lehiaketa |
| 6 | Zu zeu Arantxi Etxeberria, Ereineko langilea. | 28 | Erretratua Julen Galarraga sukaldaria. |
| 8 | Nire leihotik Haizea Salegi, <i>Bizi ala biziraun?</i> | 32 | Plazan bazan |
| 10 | Iritzia Luis Gurrutxaga, <i>Azken sutebietakoa; Txetxu Urbieta, Sua.</i> | 35 | Iritzia Imanol Amiano, <i>Euskaldun, pedigridun.</i> |
| 12 | Elkarrizketa Joxe Garmendia, Ikaslagun egitasmoaren koordinatzaileetakoa. | 36 | Atzera begira Izei musika taldea. |
| 18 | Erreportajea Mediku gabezia Azpeitiko anbulatorioan. | 40 | Iritzia Ione Gurrutxaga, <i>Berriak zahar.</i> |
| | | 42 | Klik! Izar-Haitz garagardoa. |
| | | 46 | Iritzia Miel A. Elustondo, <i>Putz; Aintzane Garmendia, Gure kaiola.</i> |
| | | 47 | Iritzi grafikoa Itziar Aranguren. |

UZTARRIA

TOKIKOM

Argitaratzailea

Urolako Komunikazio Taldea
Koop. Elk.
Soreasu 1. 20730
AZPEITIA
943-15 03 58
uztarrria@uztarrria.eus
www.uztarrria.eus

Zuzendaria:

Julene Frantzesena
Erredaktoreburua:
Ihintza Elustondo
Erredaktore taldea:
Mailo Oiarzabal
Julene Frantzesena
Maialen Etxaniz

Ihintza Elustondo

Diseinu arduraduna:
Iñaki Martinez Albizu
Publizitate arduraduna:
Angel Sarasua
Zenbaki honetako kolaboratzaileak:
Haizea Salegi

Luis Gurrutxaga
Txetxu Urbieta
Itziar Aranguren
Olatz Alkorta
Imanol Amiano
Ione Gurrutxaga
Miel A. Elustondo
Aintzane Garmendia
Elena Margüello

Inprimategia:

Antza Inprimategia
(Lasarte-Oria)
Lege Gordailua:
SS-860/2000
ISSN: 1576-7337
Tirada: 2.500 ale



Gipuzkoako Foru Aldundia



uztarrria
AZPEITIKO KOMUNIKAZIO TALDEA

PUBLIZITATEA



ostadar optika
OPTOKIAKI - OPTOMETRISTAK

Jose de Artetxe, 17 Ibai Ondo, 28
Tel. 943-810664 Tel. 943-850445
AZPEITIA AZKOITIA

EGUZKI
belandencia
dietetika
kosmetika naturala



Kale Nagusia, 07 943-00 34 47 **AZKOITIA**
Urtutele 9 bis 943-15-00 23 **AZPEITIA**

IRENE ALTUNA
JONADENDA

Loiola-Bide, 26 Tel. 943-81 51 87
www.ikamadenbak.com

AZKOITIA

ERLOJU
KONPONKETAK

Arana, 5
AZPEITIA Tel.: 943 81 47 12

KIRURI



JATETXE

Lola hiribidea, 24
LOIOLA - AZPEITIA

Tfnoa.: 943 81 5008
Faxa.: 943 15 03 62



uba
ahelbularitza

Anakularitza
luzera
jenerala
bonitate

Gestioi lanak
Finlan administratzaio
Gestio inbularitzaio

Tfno. 943 307 304 Faxa. 943 307 374
Buztana Nagusia, 48 - 20730 AZPEITIA



Ekain
ALBAITARI KLINIKA

Euskal Herria Kalea, 34
20730 **AZPEITIA**
Tel.: 943-15 16 40
Larrialdiak: **688 69 29 51**

**JARRI HEMEN
ZURE IRAGARKIA!**

Aiortza Autoak
Behar duzun konfiantzazko talerria!

Marka guztiak
ibilgailuen konponketak

943-81 19 15
AZPEITIA
aiortza@aiortzaautoak.com



EuroRifer EUROVALER MULTIMARKA ZERBITZUA



adi
ARTE ETA
DISENU
ESKOLA
ELKARTEA

Marraskia eta eskulanak
(haurrak) 17:30 - 19:00

Pintura 16:00 - 17:30
(helduak) 19:00 - 20:30

Talia 18:30 - 20:00

Jose Artetxe kalea, 3
943 81 29 08
www.adiainua@gmail.com
Matrikula urte osoan zabalik

IKA
argi lanak s.l.

Instalakuntza Elektrikoak

Urko: 618 96 49 95 / Jon: 649 12 02 71
ikasplana@gmail.com www.ikasistemak.com
20730 AZPEITIA

"KOLOREAREN ESPARRUAN EZ DUGU MUGARIK"

**URBISTONDO
MARGOAK**

Salbe Auzunea, 35 behea 20730 AZPEITIA - Urrut.: 943 81 57 81

Denak ez du balio



JULENE FRANTZESENA

Hala idatzi zuen Aitor Sarriegi bertsolariak duela zenbait aste Twitterren: "Niri bakarrik jartzen al zait baten bat hiltzeko gogoa 'balioan jarri' entzuten dudanero?". "Bejondeiala!", pentsatu nuen neure artean. Zenbat aldiz hitz egin dugun horretaz erredakzioan, zenbat prentsa oharretan irakurri dugun halakorik eta eredu behar luketen zenbat hitzunek erabili duten esamolde hori ahoa beteta azken hilabeteetan; harrituta uzteraino. Txio argia, aspaldi esan nahi nuena lerrootan idazteko aitzakia. Baten bat hiltzeko adinako gogoa ez, baina pare bat belarrondoko emateko gogoa sumatu izan dut behin baino gehiagotan; izan ere, "burutu"-ren fenomenoak itzaltzearekin –horrek ere odola irakiten jarri izan didanik ezin uka– etorri da dena balioan jartzeko ohitura.

Datuek diote Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan euskararen ezagutza maila igo egin dela herritarren artean, baina horrek ez du bermatzen erabilera areagotzea, ezta hizkuntzaren kalitatea hobetzea ere. Betikotutako gurpil zorora eramango dut fokua, mediku euskaldunen auzian erabili izan den eztabaida antzura: kantitatea edo kalitatea balioetsi behar genuke? Bai, balioetsi, eta ez balioan jarri. Gaztelaniako *poner en valor* da hain etxekotuta dugun esamoldearen jatorria, beste hainbat hitzekin edo esapiderekin gertatzen den bezalaxe, eta ahoa beteta erabiltzen ditugu horiek, askorik pentsatu gabe; denek erabiltzen dutelako geure egiten ditugu halakoak.

Nork esan ote zuen lehen aldiz *poner en valor*, eta nork euskarara ekarri modu zabar horretan? Espainoletik hartutako kalko oker bat baino ez da, eta gaztelaniaz ere ez dakit ondo esanda al dagoen; izan ere, *valorar* modu *cool*-agoan esateaz haratagoko asmorik ez diot ikusten. Euskaraz zerbait baloratzea edo zerbaiti balioa ematea ez al da naturalagoa? Zerbait nabarmentzea, bestela; edo balioestea, besterik gabe. Baina ez, hizkuntzari goroldioa kendu ordez, askoz hobe kalko okerrak erabiltzea ondareari, egindako zerbaiti, hizkuntzari berari edota ondokoari balioa ematea baino.

"Burutu"-ren fenomenoak hartu zituen duela urte batzuk lerroak eta hitzartzeak, "sinergiak aprobetxatu"-k ere bai urte batzuk lehenago. Orain, berriz, balioan jartzen dugu dena, zentzurik gabe, boteprontoan, halabeharrez. Ziklikoa da modako hitzen kontua. Baina gogoratu: denak ez du balio. Balio ez duena ezin da "balioan jarri", ezin zaio hari balioa eman. Alferrik ari gara, aritzeagatik aritzen garen bitartean.

A, eta galdera bat: zein izango da gaizki erabiliko edo asmatuko dugun eta bazter guztietan behin eta berriz ikusiko dugun hurrengo hitza edo esamoldea? Ez alferrik hartu halako lanik, ikastea desikastea baino errazagoa baita. ■■■

"BURUTU"-REN FENOMENOA ITZALITA ETORRI DA DENA BALIOAN JARTZEKO OHITURA

Arantxi Etxeberria: "Ez dakit zergatik, baina paperaren bueltan lan egin dut beti"

TESTUA: IHINTZA ELUSTONDO

ARGAZKIA: UTZITAKOIA

18 urterekin Xubi enpresan lanean hasi, eta 22 urte eman zituen han Arantxi Etxeberriak (Azpeitia, 1967). "Hantxe jubilatuko nintzela uste nuen". 2008ko krisiaren ondorioz, baina, itxi egin zuten lantegi hura, eta paperari lotutako beste eremu batera eraman du bizitzak: Erein argitaletxean lan egiten du duela zazpi urtetik, Donostian. "Asko gustatzen zait nire lana", dio. **Bizitza guztia lanean eman ostean, langabezian gelditu zinen 40 urte zenituela. Zer egin zenuen orduan?** "Zer egin behar dut nik orain?", pentsatzen nuen. Ez neukan ikasketarik, ez ezer. Bi lagunek goi mailako administrazio zikloa ikastera bultzatu ninduten, eta animatu egin nintzen. Hura bukatzean, lan ezberdinak probatu nituen. Gero, Erein argitaletxean administraziorako norbaiten bila ari zirela jakin nuen, eta lanpostu horretarako hartu ninduten. Ez dakit zergatik, baina paperaren bueltan lan egin dut beti.

Zer egiten duzu, zehazki?

Denboraldi batez, administrazioan aritu nintzen, eta gero, komertzial gisa lan egin nuen ikastetxeetan. Testu liburuak, irakurgaiak eta abar saltzen nituen. Bost urtez aritu nintzen horretan, eta orain, administraziora itzuli naiz berriro. Egia esan, gehiago gustatzen zait orain egiten dudana. Komertzial lana gustuko dut, baina nekagarria da, eta lasaiago nago administrazioan. Gainera, oso giro ederra daukagu lantaldean. Orain, postuz aldatuta, ofizoa ikasten ari naiz berriro. Bizitza honetan beti ari naiz ikasten. Zera esaten dut: "Noiz bukatu behar dut ikastea?".

Nolakoa da argitaletxe baten funtzionamendua?

Egileek eskuizkribuak ekartzen dituzte argitaletxera; hainbat iristen zaizkigu. Uxue Razquin da Ereineko editorea, eta hark irakurtzen ditu testu horiek; hark erabakitzen du argitaratu edo ez. Ondoren, kontratuak egiten dira egileekin, ilustratzaileekin, itzultzaileekin... Gero, zuzenketen fasea hasten da, eta produkzioarena jarraian: liburuaren diseinua erabakitzen da,

maketazioa, azala... Amaitzeko, liburua inprentara bidaltzen dugu, eta argitaratzean, komunikazio lana egin behar izaten da.

Prozesu horretan, administrazioran aritzen zara zu.

Hori da. Fakturazioa, hornitzaileei erosketak, kontratuak... egiten ditut nik. Ez dugu pentsatzen, baina sekulako lana dago liburu baten atzean.

Irakurzalea al zara?

Gure amak esaten zuen txikitatik nuela zaletasuna. Garate Anaia auzoan bizi ginen, eta hango umeak zinemara joaten ginen igandeetan. Filma amaitzean, Joxelitona joaten ginen gozokiak erostera. Denek gozokiak erosten zituzten, baina niri ez zitzaizkidan gustatzen, eta beti komikiekin joaten nintzen etxera: *Esther y su mundo*, *El Jabato*, *Zipi y Zape*, *Mortadelo y Filemón*... Gaztetan ere jarraitu nuen irakurtzen, eta geroago, Agatha Cristieren eta Stephen Kingen liburuak irakurtzen hasi nintzen. Haurrak izatean, pixka bat alboratu egin nuen zaletasuna, eta orain, berriro hasi naiz irakurtzen. Lehen beti gaztelaniaz irakurtzen nuen, eta orain, Ereinen lan eginda, euskaraz irakurtzen dut, batez ere. Gauero-gauero irakurtzen dut; liburu bat gustatzen bazait, goizeko ordubiak edo hirurak arte jardun naiteke irakurtzen. Gozatu egiten dut.

Zer saltzen da gehien?

Poesia ere saltzen da, baina batez ere, narratiba. Egile batzuek arrakasta handia dute: Ramon Saizarbitoriak, Andu Lertxundik, Jon Arretzek, Toti Martinez de Lezeak... Orain erronka bat daukagu: gazteen alde ari gara apustua egiten. Kultur arloko mugimendua itzaltzen ari dela uste dugu, baina sormen handia eta oso maila ona dute gaur egungo gazteek. Oso ona dator belaunaldi berria, eta pozgarria da hori.

Ba al duzu idazteko ohiturarik?

Ez, beti esaten dute bizitza honetan hiru gauza egin behar direla: umeak eduki ditut, zuhaitzen bat ere landatu nuen gaztetan, baina libururik ez dut idatzi. Erronka handia litzateke niretzat liburu bat idaztea, baina sekula ez da esan behar ezetzik, ez da jakiten eta. ■■■



Bizi ala biziraun?



ARGAZKIA ETA TESTUA: HAIZEA SALEGI

Lagun batengana bisitan, zazpi ordu autoz.
Bidaia luze, baina helmuga eder.

Eguneroko kezak bidean askatu,
iristean bakea lehen aldiz sentitu.
Lasaitasunean elkarrekin momentua biziz,
non gauden ere ezin sinistu.

Zuhaizpean sortu zaigu galdera ea zer, beti horrela biziko bagina.
Epeldu aurretik bizitza edan, galdu aurretik, lagunak maita.

Zuhaizpean garela elkar begiratu,
norbere baitan murgilduta korapilatu,
hausnartzen hasi eta ondorengoarekin amaitu:

Zer den eta zer garen,
orain arte bizirauten,
hemen ohartu bizitzea zer den. ■■■







LUIS GURRUTXAGA

Azken sutegietakoa

Mendeetan eta mendeetan iraun duten ofizioak edo lantegiak desagertu edo guztiz eraldatu dira gure ezaguerako urte gutxitan. Horietakoak dira sutegiak. "Sutegiak? Zer dituk sutegiak?". Harriduraz hartu dut neure inguruko ezagun dezentek sutegiez aztarranik ez edukitzea. Beno, *Patxi Errementaria* ipuin ezaguneko pertsonaiaren aipamena egiteak solaskidea gaira hurbiltzeko balio izan dit. Antza denez, duela 4.000 urte gizakiak metalak manipulatzeko eta moldatzeko ikasi zuten. Gurera etorrita, XIV. mendean oso garatua zegoen burdinaren industria Urola eta Deba haranetan. Horrek burdin materia anitzen eraldatzea dakar: erremintak, iltzeak, ferrak, burdin hesiak... Oñatin 70 sutegi zeuden XVI. mendean, eta haietako bakoitzean hainbat

maisua eta ofizial –sei baino gehiago ez–. Ofizio zeharo gogorra. Gazte, 14-16 urterekin, hasten ziren maisuaren etxean. Oinordetzako lanbidea izan da, hereditarioa, belaunalditik belaunaldira igaro den lanbidea. Guk Nuarben ezagutu genuen sutegia; Julian Alegria zen bertako errementaria. *Julian Txiki* goitizenez ezagutzen zen, luzera txikikoa zelako, baina izaeraz eta ekimenez erraldoia, benetan. Julianen familiaren tradizioa errementaritza eta perratzailegintza zen, eta tradizio horrek gutxienez XVIII. mende

**NUARBEN EZAGUTU
GENUEN SUTEGIA;
JULIAN ALEGRIA ZEN
BERTAKO
ERREMENTARIA**

erdian du jatorria. Julianen herenaitona Juan Bautista errementariaren datak artxiboetan XIX. mende hasieran agertzen dira. "Pentsa zeinen garrantzitsuak ziren errementariak –dio Bonik, Julianen semeak–. Azpeitiko Udaleko artxiboetan bederatzigutun topatu dizkiat –lehen 1813koa–, zeinetan autoritate militarri erregutzen zaion Juan Bautistaren seme errementari Jose Inazio soldaduskatik libre geldi zedila. Batetik, argudiatzen zen seme bakarra zela familian, eta bestetik, errementari lana egin zezakeen beste inor ez zegoela eta horrek kalte larriak eragin zitzakeela. Erantzunik jaso ote zuten ez zekiagu. Saiatu nauk garaiko artxiboak arakatzen, baina... kale!".

Julianek aita Patxirengandik ikasi zuen ofizioa, hau da, arestian aipatu dugun Juan Bautistaren

HAUXE BAI JENEROAI!



bilobarengandik. Erruz izaten zuen lana: inguruko baserrietako ganadua ferratzen zuen; otargintzarako tresneria egin, konpondu eta zorrotzu; baserrietan erabiltzen ziren tresnak zorrotzu eta akatsak konpondu –goldeak, adibidez–. "Beizamako errepidea egin zenean –dio Bonik–, barrenoak ekarri eta hurrengo egunean zorrotzuta presto eduki behar izaten zizkian attek, langileak zulaketa lanean hasteko. Beste kuriositate bat kontatuko diat: urtean zehar zorrotzen zuen tresneriagatik –urteko zorrotzura– baserritarrak hainbat gari anega edo artoa eman behar trukean. Ni seme gazteena nintzenez, behin edo beste joan behar izan nian baserritarrarengana zorra gogoraraztera... kar, kar, kar".

Oraindik present ditut sutegiko imajinak. Eskolatik irtenda,

sarritan joan ohi nintzen hauspoari edo zorrotzeko erroberari eragitera. Eta oraindik gogoan dut burdin puska ikatzaren eraginez goritzen zenean hedatzen zen usain berezia. Duela 50 urte, gutxi gorabehera, sutegiek desagertzeko bidea hartu zuten. Alegriatarrek sutegia garaje bilakatu zuten. Auzoko festetan antolatzaileek taberna gisa erabiltzen zuten, Sutegi Pub izen nostalgikoa ezarrita, eta sagardotegi garaian, berriz, upela kokatzen genuen, izen berriarekin: Txorrolargo sagardotegia.

Baina goiz baten makina erraldoiak etorri ziren, eta garai bateko sutegia, eraikuntza osoarekin batera, suntsitu egin zuten, etxe berriak egiteko.

(1867-2005) *In memoriam*
Ibaiederko azkenetako
sutegia. ■■■

HAN ETA HEMEN



TXETXU URBIETA

Sua

Erdia bustia eta beste erdia lehorra. Nire adinekoon gorputza horrela osatuta omen dago. Lehorron gorputza ere bai. Onartzen dut, bai, egunero litro eta erdi ur edan arren, lehorra naizela. Agian horregatik izango da, ura edateagatik. Lehorra eta xelebrea. Xelebrea? Hori diote. Zergatik? Alkoholik ez dudalako edaten. Bazkari edo afari bat dudan bakoitzeko, azalpenak eman behar. Eta xelebrea etiketa niretzat. Bien bitartean, ni harrituta jendeak, batere egaririk gabe, zenbat edaten duen ikusita. Klin-klink eta barrura. Beste bat. On egin.

Ni neu ere kofradia horretako kide izana naiz. Ez naiz ezkutatuko. Ni ere Gau Txori kumea izana naiz. Patxik Fideoko ateak itxi eta Pastorkua aurrerako bidea pausokera xelebrea makina bat aldez egindakoa. Eta egindakoaz inolako damurik ez. Gorputzak gasolina eskatzen zuenez, eman egin behar. Sua, ordea, itzali zen. Jendetzak ez ditut gustuko, hiruzpalauko mahaia ditut atsegin. Mendiko txoritxoan txio-txioa eta itsasoko olatu txikien plisti-plasta. Ñoño jartzen ari haiz, Urbieta.

Baina aitortu behar dut barrua sutan daukatenez, tarteka, inbidia pittin bat ere ematen didatela. Oso urrun ez dauden irudi eta oroitzen ederrak datozkit burura. Gazte gineneko irudiak. Sua piztuta duzuenok, festarik festa, errespetuz, erre bazterrak. Besteok, txio-txioa entzunez pasieran edo olatuei begira egongo gara. Goza zure poza. ■■■



"Ikaslagun egitasmoak lan asko ematen du, eta giharra behar da"

JOXE GARMENDIA IKASLAGUN EGITASMOAREN KOORDINATZAILEETAKOA

Harrera etxeetan bizi diren umeei eta gazteei hezkuntzaren esparruan laguntzeko bi egitasmo martxan jarri dituzte azken urteetan Gipuzkoan, EHUko ikertzaile batzuen ekimenetik abiatuta eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren bultzadarekin. Garmendia da ikertzaile horietako bat. Orain arte egindako bidez hitz egin du Uztarriarekin.

Testua: **Mailo Oiarzabal**. Argazkiak: **Mailo Oiarzabal eta Nagore Iraola (EHU)**.

Irakaskuntzan bete duen ibilbide luzean esperientzia eta lan desberdin ugari pilatu ditu Joxe Garmendiak (Azkoitia, 1959). Ikasle ibilbidean, berriz, etena egin zuen Batxilergo eta unibertsitate ikasketen artean, eta tailer batean hasi zen lanean. Ikasketei berriro utsita, Magisteritza ikasi zuen, eta Urrestillako ikastolan estreinatu zuen titulua. Handik Karmelo Etxegaraira, handik Ikasberrira, eta Azpeititik unibertsitatera, azkenean; Donostiara, Hezkuntza Fakultatera, bidean Pedagogia lizentziatura, zenbait master eta tesi bat eginda. Ia hogeit urte bete ditu unibertsitateko irakasle lanean, baina ibilian-ibilian, unibertsitateetik eta zeharka bada ere, irakasle hasi zenean izan zituen ikasleen adin bertsuko beste ikasle batzuekin lan egitea egokitu zaio azken urteetan: Ikaslagun egitasmoan parte hartzen duten harrera etxeetako umeekin. **Besteak beste, EHUko Garaian ikerketa taldeko kidea zara. Zer arlo lantzen dituzue talde horretan?** Lanean non eta norekin sartzan zaren inportantea da, hori erakutsi dit nire ibilbideak. Bai ikastolan egon nintzen garaian, bai unibertsitatean, lankide talde onak tokatu zaizkit; eta *tokatu* diot, askotan

ez dituzulako zeuk aukeratzen. Unibertsitatean lan ildo desberdinak izan ditut, eta horien artean garrantzitsuenetakoa da Garaian. PIU deritzon moldeko taldea da Garaian, prestakuntza eta ikerkuntzarako unitatea. Horrek esan nahi du talde ezberdinen multzoa dela, talde kontsolidatua; ikerketara bideratutako talde sendoak izaten dira horiek.

Garaianen barruan zein paraleloan pare bat taldetan aritu izan naiz. Bat, immigrazioa eta hiri hezitzaileak ardatz hartuta. Era berean, Garaianekin hezkuntzarekin lotutako produkzioa ateratzen genuen. Garaianek ekarpen oso garrantzitsua egin du, eta oso harro sentitzen naiz horrekin: Hezkuntzaren Museoa. Talde horrek egindakoa izugarritzko ekarpena da nire ustez, behar adina etekin ateratzen ez bazaio ere. Garaian hezkuntzako kontu pila bat ari da ateratzen. Landagunea zen nire espezialiazioa, ikastolen ibilbidea ere ezagutzen nuen, eta hortik joan nintzen hasieran. Esaterako, garai batean Gipuzkoan ziren eta desagertu edo egitura handiagoetan txertatu eta galdu ziren ikastolen historia jaso nuen. Ikastolen urteurrenen harira argitaratutako liburuetan agertzen dira horiek,





Ikaslagunen ikasturte amaierako festa. NAGORE IRAOLA / EHU

baina informazio hori guztia ez dago sarean, eta gaur egun sarean dagoena ikusten dugu eta bizitzen dugu.

Zenbat kidek osatzen duzue Garaian ikerketa taldea?

Hamabi-hamasei lagunek osatu dugu azken aldiari Garaian, baina horien artean denetarik dago eta bakoitzak bere interesak ditu. Baina talde batean egotea komeni da. Kredentzialismoa da gaur egun unibertsitatean dagoen pipi handiena. Eta kredentzialismoarekin, *sexenioak*. Sexenioak sei urteko epeak dira, bai; baina hori baino gehiago sexenioek egiaztatzen dute, nolabait, maila bateko ikertzailea zarela, eta inportantea da horiek edukitzea. Sexenioak baloratzeko, berriz, prestigiodun aldizkarietan lanak argitaratu behar dituzu; eta normalean, prestigiodun aldizkariak atzerrikoak izaten dira, hemengoak gutxi, eta gehienetan ingelesez publikatu behar duzu. Euskaldunok, beraz, badugu hor hutsune bat; euskaraz hitz egiten da, baina errealitatea ez da euskalduna. Bestalde, jubilazio bidean gaude batzuk, Garaian desegin egin da orain, eta talde berria dator.

Harrera etxeetako umeekin eta gazteekin egiten duzuen lana non txertatzen da zuen jardunean? Nondik eta nola sortu zen?

Garaian taldeak bekadunak izaten ditu. Horietako batek, Joana Miguelena [Garaian taldean kide gisa jarraitu du lanean gerora hark], harrera etxeen gaineko lan bat egin zuen, eta lan horren haritik etorri dira martxan jarri ditugun bi proiektu sozialak: Arrakasta eta Ikaslagun. Joana ohartu zen unibertsitatean bazirela harrera etxeetatik iritsitako ikasleak, baina ikasle horiek arazo pila bat zituztela. Umeak edota gaztetxoak harrera etxeetan badaude, esan nahi du beren familia testuingurua ez dela oso egokia. Bere familia testuingurua ez bada egokia, nola bultzatu neska hori, mutil hori, unibertsitatean jarraituzera? Gogo bizia behar du aurrera egiteko, baina baita lagunduko dion ingurune bat ere. Euskarriak eduki behar ditu, euskarriak ez badauka, zaila da. Horretaz ohartu ginen, taldean proposatu, eta ikasle horiei euskarri batzuk eskura jarri behar genizkiela erabaki genuen. Aldundiarekin harremanetan jarri ginen, eta ikasle horiei beren ibilbide akademikoan laguntzeko euskarriak nola sortu lanean hasi ginen.

Zer euskarri dira horiek?

Lehendabiziko euskarria bekaren bat sortzea zen. SM argitaletxearekin hitz egin genuen, eta sortu nahi genituen beka horientzako dirua ipintzeko



Joxe Garmendia.

"NORMALEAN, HARRERA ETXEETATIK UNIBERTSITATERA AILEGATZEN DEN JENDEA SAIATUA IZATEN DA"

"JOLASERAKO LAGUN ETA ERREFERENTE ERE IZATEN DIRA BOLUNTARIOAK HAURRENTZAT"

prest agertu zen SM Fundazioaren bidez, harrera etxeetatik unibertsitatera iritsitako ikasleek beka berriei esker karrerarik ez zezaten ordaindu. Hori izugarritzko laguntza da. Bigarren euskarria edo pausoa garraioa izan zen, eta beste bat materialetarako euskarria, ordenagailu bat edo dena delakoa behar izanez gero. Horrela egin zen Arrakasta. Dozena erdi ikaslerekin abiatu genuen egitasmoa, 2017an. Borrokatu dugu harrera

etxeetako ikasleentzat unibertsitateko matrikulak debalde izan daitezzen, beste kolektibo kaltebera batzuek alde horretatik duten laguntzarekin parekatzeko, bekaren ordean laguntza zuzen hori izan dezaten, baina ez dugu lortu.

Zenbat ikasle iristen dira harrera etxeetatik unibertsitatera?

Harrera etxeetan edo egoitza baliabideetan bizi direnen %4 besterik ez da iristen unibertsitatean ikastera, egituratutako familietan –nolabait esateko– hazten diren gazteak baino askoz gutxiago. Datu hori eta unibertsitateraino iristen direnek dituzten zailtasunak kontuan hartuta, behetik ere zeozer egin beharra zegoela konturatu ginen, eta horrela sortu zen Ikaslagun, 2018-2019 ikasturtean.

Zer da Ikaslagun?

EHUko ikasle boluntarioen bidez egoitza baliabideetan dauden Lehen Hezkuntzako ikasleei errefortzu akademikoa ematea da Ikaslagunen xedea; hamahiru bat ikasle baditugu DBHkoak, LH 5-6tik gurekin dabiltzalako, eta ezin ditugu askatu horiek. Astean behin joaten dira ikasle boluntarioak dagozkien umeekin beren harrera etxeetan egotera, pare bat orduz. Eskolako laguntza ematen zaie umeei, baina horrez gain, haur horientzat jolaserako lagun eta erreferente ere izaten dira unibertsitateko ikasle boluntarioak. Gure ustez, aberasgarria da hori alderdi biantzat: aberasgarria da umeentzat, lagun erreferente hori aurkitzen dutelako eta hark ikasten laguntzen dielako; eta ona da guretzat, gure ikasleek testuinguru eta errealtate horiek ezagutzen dituztelako, eta inportantea da hori unibertsitateko ikasleen formaziorako.

Hizkuntzaren alderditik ere garrantzitsua da; hasieran, Ikaslagunen boluntario gisa parte hartzeko apuntatzen zitzaigun erdaldunen bat edo beste, baina harrera etxeetatik eskatzen ziguten EHUtik joaten ziren ikasleak euskaldunak izatea.

Zenbat ikasleri ematen zaie laguntza Ikaslagun programarekin?

2021-2022 ikasturtean 64 ikaslek parte hartu dute programan. Gehiago ez ditugu hartzen, ez garelako iristen. Bi lagun gabiltza egitasmoa koordinatzen [Garmendia bera eta Miguelena], eta bekadun bat ere badugu orain, laguntzeko. Oso interesgarria da, baina lan asko ematen du eta giharra behar da. Gu boluntario ari gara lan hori egiten, ez dugu hortik kobratzen. Bizkaian ere antzeko zerbaitek martxan jartzeko interesa



"BADAGO TOKI BATZUETAN EMAITZEZ, NOTEZ, GALDETZEKO JOERA. ADARRA JOTZEN ARI AL GARA?"

dutela iritsi zaigu, baina gu ezin gara joan Bizkaira, ez daukagu-eta denborarik. Bizkaian horrelako zerbaite martxan jartzeko, bizkaitarrek egin beharko dute, interesa eta lanerako prest dagoen jendea baldin badituzte.

Zein da zure egitekoa Ikaslagunen?

Ikerketa taldea daukagu gainean, eta behar badugu, badaukagu haren babes. Baina, oinarrian, bi lagunen artean eramaten dugu dena. Lehendabizi, EHUko ikasle boluntarioak inguratu behar dira, deialdia egin eta hiru fakultatetara zabalduz. Lanerako aurkezten diren ikasleak elkartzen ditugu ondoren; etxe bakoitzean zenbat ikasle eta zer adinetakoak ditugun esaten diegu, eta boluntario bakoitzak esan dezala nora joatea interesatzen zaion. Formazioa ere eskaintzen diegu boluntarioei... Finean, koordinazio eta antolaketa lana da gurea.

Gipuzkoa osoko ikasleak artatzen al dituzue?

Donostiako, Irungo eta Azpeitiko harrera etxeetako ikasleekin ari gara lanean. Guztira, hamalau etxetako ikasleak ditugu egitasmoan. Harrera etxeetako arduradunek esaten digute zenbat ikasle behar duten Ikaslagunen

errefortzua, beraiek ikusten dute beharra zeintzuk duten. Harreman zuzena daukagu Aldundiarekin, haren tutoretzapean daudelako harrera etxeetako ikasle guztiak.

Zein da Ikaslagunen artatzen dituzuen ikasleen profila?

Denetakoak daude, autoktonoak eta autoktonoak ez direnak, baina gehienak autoktonoak dira, bertan jaiotakoak.

Eta zein da egitasmoan parte hartzen duten unibertsitate ikasleen profila?

Denetarik dago. Magisteritza, Gizarte Hezkuntza edo Psikologia ikasten ari direnak izaten dira asko, baina Zuzenbideko ikasleak ere etorri zaizkigu, haurren eskubideez ikasi nahi dutelako eta harrera etxeetako errealitatea ezagutzea nahi dutelako. Izan ere, esan bezala, unibertsitate ikasleei ondo etortzen zaie mundu hori ezagutzea beren formaziorako. Praktikaldi boluntarioa da Ikaslagun unibertsitate ikasleentzat; hiru kreditu ematen dizkiegu parte hartzen dutenei, ikasgai baten notaren balioaren erdia, alegia. Autobuserako txartel bat jasotzen dute, lanera joan behar duten lekura joan daitezten. Hasieran

beste bide batetik hasi ginen, baina gero Aldundiarekin hitzarmena egin genuen, eta hitzarmen horri esker txartel horiek ordaintzeko adina diru ematen digu. Oraintxe hasi gara eginkizun batzuetarako dirua ikusten; orain arte, mezenasei edo babesleei eskatu izan diegu laguntza, baita ikasle boluntarioen autobusa ordaintzeko ere.

Baina hasieratik aritu zarete Aldundiarekin elkarlanean, ezta?

Bai, elkarlana bai, baina beste kontu bat da dirua guri ematea. "Egin ezazue, baimena duzue. Ikusiko dugu nola egiten den, eta horren arabera, hitzarmenak egingo ditugu"; horrela izaten dira gauzak. Aldundia ez zen etorri gugana, guk muntatu genuen egitasmoa eta gu joan ginen harengana, eta babesa eta proiektua garatzeko baimena eman zizkigun erakundeak. Baina dirulaguntzak ez ditu hola eta hola ematen Aldundiak, ezin ditu eman. Proiektu fantasma bat aurkezten duzu eta dirua eskatu? Egon hadi pixka bat, hi.

Ikaslagunen parte hartu nahi duten unibertsitate ikasle boluntarioak topatzea erraza al da?

Orain arte bai. Hemendik aurrera, ikusi egin behar. COVID-19a dela eta, bi urtetan ikasleek ez dute atzerrira irteteko aukerarik izan, praktikaldiak kanpoan egiteko bide guztiak moztu egin dira. Beraz, hemen gelditu behar izan dira eta hemen pilatu behar izan dituzte kredituak. 150 aurkeztu izan zaizkigu, boluntarioak gainezka izan ditugu. Aurten justu ibili gara, baina lortu ditugu, eta aurrerantzean, ikusi egin behar. Giharra behar dela esaten dudanean horretaz ari

naiz, ailegatu gaitzkeen tokiraino ailegatuko gara, ez gehiago.

Ikaslagunek harrera ona izan duela adierazten du laguntzen kontuak. Zein da orain arteko balorazioa?

Aldundia oso gustura dago egitasmoarekin; Bigarren Hezkuntzako ikasleak ere sartzea nahi zuten, baina guk ez dugu ikusten horretarako aukerarik momentuz. Gure ikasleentzat ere aberasgarria da egoitza baliabideak ezagutzea. Beraz, uste dut bi aldeentzat dela mesedegarria Ikaslagun, eta bi aldeen arteko bitartekari lanak egitea dagokigu guri. Harrera etxeetan ere gustura daude egitasmoak umeei egiten dien ekarpenarekin. Hala ere, badago toki batzuetan emaitzez, notez, galdetzeko joera, Ikaslagunen errefortzua jasotzen dutenei eskolan aurrerapena antzematen al zaien jakiteko gogoia. Adarra jotzen ari al gara? Ez daukate ba nahikoa lan ume horiek. Guk laguna ipini diegu ondoan, eta lagun horrekin gustura egotea bera ez al da lorpena? Umea lagunarekin gustura badago, nota etorriko da.

Eta zer moduzko bilakaera ari da izaten Arrakasta?

Arrakasta bai zabaldu dela Bizkaira eta Arabara, eta Espainiako Estatuko beste erkidego batzuetara ere ari da hedatzen. Hiru aldundientzat erraza zen eredu hori ezartzea: unibertsitatera iristean, harrera etxeetatik datorren jendeari babesa ipintzea eta diru kopuru bat eskaintzea da. Gainera, normalean, harrera etxeetatik unibertsitatera ailegatzen den jendea saiatua izaten da, ikastea nahi duena. Horiek laguntzea erraza da. Arazoa behean daukagu. ■



URRATEGI
INTERIORISMO
barru diseinua

Arretxe 9
20730
Azpeitia
943-85 72 44

Arrogueta 27
20600
Elbar
943-85 72 44



www.urrategiinteriorismo.com

dica www.dica.es

4.500 herritar familia mediku gabe

Gaur-gaurkoz, hiru familia mediku falta dira Azpeitiko anbulatorioan; hau da, 4.500 herritar familia medikurik gabe daude. Osakidetzak dio "arreta une oro" bermatuta dagoela, baina zenbaitek ezbaian jarri dute ematen den zerbitzuaren kalitatea. Osasun langileak "kokoteraino" daude, egoera luzatzen ari delako, eta herritarrak, udal ordezkariak eta Baigera elkarteak kezkatuta.

Testua: **Ihintza Elustondo**. Argazkiak: **Kris Fernandez eta Ihintza Elustondo**.

Une honetan, Azpeitiko osasun zentroan hiru familia mediku falta dira; hau da, hamar lanaldi eta erdirekin egin ohi duten lana zazpi eta erdirekin ari dira egiten. Gaur-gaurkoz, 4.500 herritar inguruk ez dute familia medikurik; lanean ari diren gainontzeko familia medikuek ematen diete zerbitzua herritar horiei guztiei, orain batek eta hurrengoan beste batek. Aspalditik ari dira osasun langileak lehen arretan bizi duten egoera salatzen –hainbat protesta egin dituzte anbulatorioaren atarian–, eta herritarrak ere hasi dira gaiaren inguruko hausnarketak plazaratzen; besteak beste, lehen arreta indartzea eskatzeko mozioa aurkeztu zuen martxoan Baigera jubilatuen elkarteak. Azkenaldian, harrabotsa eragiten ari da gaia, eta egoeraren ertzak aztertu nahi izan ditu hedabide honek, familia medikurik ez duen herritar baten kexa jaso ostean.





Osakidetzak azaldu duenez, medikuen "gaixo baimenak, lekualdaketak eta erretiroak" tarteko sortu dira hiru hutsune Azpeitiko anbulatorioan. Duela gutxi, lanpostu huts horiek betetzeko deialdia egin zuen Osakidetzak, baina postu horiek ez dira bete, "eskatzaileen kopurua eskainitako plaza kopurua baino txikiagoa delako". Osakidetzak dioenez, familia medikuntzako langileak falta dira, baina erakunde horren arabera, garrantzitsuena da "asistentzia beti bermatuta" dagoela. Izan ere, "Azpeitiko biztanleei profesional baten arreta jaso ahal izateko aukera emango dien zerbitzua" antolatu dute: "Pertsona bakoitza haren egoera ondoen kudeatuko duen profesionalarengana bideratzen dugu, pazientea osasun zentrorra eraman duen arazoa ezagutuz eta profesional egokienarengana orientatuz". Gainera, Osakidetzak adierazi du "beste profesional batzuekin" indartuko dutela osasun arreta.

Arreta une oro bermatzeko modua egin duten arren, hedabide honek baieztatu dituen datuen arabera, Azpeitiko biztanleria eta osasun zentroak ematen dituen zerbitzuak kontuan izanda, 12,5 familia medikuk lan egin beharko lukete anbulatorioan –hori onartuta dago Osakidetzako gerentzian–. Dena den, errealitatea bestelakoa da gaur-gaurkoz: Azpeitiko anbulatorioko langile taldea 10,5 lanaldikoa da, eta gaur egun, 7,5 ari dira lanean; beraz, onartutakoa baino bost langile gutxiago. Lanaldi horietako bat kontsultategietakoa da (Errezil eta Urrestilla), eta lanaldi erdia San Martin egoitzako medikuarena.

Familia medikuak falta izateak pazienteen jarraipena egiterakoan eragiten du, batez ere, aldian-aldian mediku ezberdinek artatu ohi dituztelako hainbat eta hainbat herritar. Era berean, lanean ari diren familia medikuen lan kargan ere eragin zuzena du horrek. Izan ere, mediku bakoitzak 1.500 pazienteko kupoa izan ohi du batez beste, eta medikuen falta tarteko, artatu beharreko paziente kopurua nabarmen igotzen zaio mediku bakoitzari –horiek artatzen dituzte familia medikurik ez duten 4.500 herritarrik–.

Udal ordezkariak, konponbide bila

Leire Goenaga Gizarte Zerbitzuetako batzordeburuak adierazi du Udal Gobernua "oso kezkatuta" dagoela Azpeitiko anbulatorioko egoera dela eta. Haren arabera, egungo hiru langileen hutsuneak gaixo baimen luzeen ondorio dira, eta Osakidetzak saiatu da horiek ordezkatzeko. "Apirila-maiatzean egin zuten lanpostu horiek bitarteko medikuz betetzeko deialdia, baina hutsik gelditu ziren postuak. Irailean berriro egingo dute deialdia, baina arrisku handia dago berriz ere postuak hutsik gelditzeko", esan du.

Azpeitiko anbulatorioan 24 orduko arreta eskaintzen dute, eta zinegotziak adierazi duenez, egungo errealitatea tarteko, udan anbulatorioa itxi beharko ote zuten beldur ziren zentroko arduradunak. Dena den, zerbitzua eman ahal

izateko, irailera bitarterako antolaketa egin dute, eta azkenean, moldatu dira. "Irailera bitartean, larrialdietako medikuekin beteko dituzte hutsuneak; ordu estrak sartuko dituzte haiek Azpeitiko beharrei erantzuteko. Harreran ere administrari gehiago jarri dituzte, haiek filtratze lana egin eta medikuek denbora gehiago izan dezaten pazienteak artatzeko".

Errealitate hori tarteko, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailarekin harremanetan jartzea erabaki zuen Udal Gobernuak, eta idatzi formal bat aurkeztu zuen maiatzaren 10ean, egoeraren berri emanez: "Azpeitiko osasun zentroaren egoeraren inguruko balorazioa egiteko eta biztanleriari erantzun duin bat emateko beharrezko neurriak hartzeko eskatu genien", azaldu du Goenagak. Ekainaren 1ean erantzun zioten, eskaera kontuan hartuko zutela esanez, Gotzone Sagardui Osasun sailburuak sinatuta. Horrez gain, gaia Eusko Legebiltzarrean lantzea ere nahi zuen Udal Gobernuak. "Legebiltzarreko Osasun Batzordean parte hartzen duten kide denei helarazteko idatzi bat aurkeztu dugu". Egoera zein den azaldu eta neurriak hartzeko eskatu dute idatzi horren bidez ere. Dena den, Goenagak argi utzi nahi izan du udalak egin dezakeen "gauza bakarra presioa egitea" dela, ez daukalako "inolako eskumenik" medikuen kontratazioan. "Profesionalen kudeaketa Jaurlaritzaren esku dago", esan du.

Egungo errealitatea "planifikazio faltaren ondorio" dela uste du Goenagak. "Aurreikus zitekeen profesionalak faltako zirela. Gainera, planifikazio hori orain egiten hasten ez badira, arazoa areagotu egingo da, datozen urteetan osasun langile pila bat jubilatuko baitira". Era berean, garrantzitsua iruditzen zaio lehen arretako lanpostuak "erakargarri" egitea. "Bestela pribatizaziorako bidea zabalduko da, eta guk hori ez dugu onartzen inondik inora. Horrek herritarren artean desberdintasunak eragiten ditu eta ukatu egiten du osasunerako eskubidea".

EAJren udal taldeak uste du baten batzuk "mauka politikoa" bilatu nahian ari direla lehen arretaren kontuarekin. "Osakidetzak lehen mailako osasun zerbitzua izaten jarraitzen du, eta guk ez dugu partekatzen planteamendu katastrofistarik", esan du Amaia Etxeberria EAJren udal bozeramaileak. Haren arabera, Osakidetzak "ahalegina" egiten ari da lehen arretako medikuak kontratatzeke, "inon baino baldintza hobek eskainiz", baina "Espainiako Ministerioaren aspaldiko aurreikuspen okerren ondorioz, ez dago lehen arretan ibilbidea egin nahi duen mediku nahikorik".

Haren iritziz, bien bitartean, "ahalegin berezia egin eta baliabideak berrantolatu" beharko dira, azpeitiarrek behar duten zerbitzua jaso dezaten: "Politikan demagogia egitea erraza da, eta negatibitatearen errentaren zain ibiltzea erraza. Lehen arreta prestatzaten saiatu beharko genuke denok, eta herri konpromiso gisa hartu mediku berriak





ZERBITZUA KONTUAN IZANDA, 12,5 FAMILIA MEDIKUK LAN EGIN BEHAR LUKETE AZPEITIAN

lortzen saiatzea". Gainera, Azpeitiko Udal Gobernuak egoera honen aurrean zuzeneko ardurarik ez duen arren, "zeharkako ardura" baduela uste du. "Pertsonen ongizatearekin eta osasunarekin ezin dugu populismoetan erori. Sistema hobetzeko, egin dezagun lana guztion indarrak uztartuta, Euskal Herri osoak, eta bereziki Azpeitiak, merezi du eta".

Baigeraren mozioa

Osasun sistemak bizi duen afera tarteko, Baigera jubilatuen elkarteak udalera eraman du gaia: *Lehen arretaren krisia Azpeitian* izeneko mozioa aurkeztu zuen martxoko udalbatzarrean. Besteak beste, udalari eskatu zion "osasun baliabide eta langile gabeziak osa ditzan" exijitzeko Eusko Jaurlaritzari. EH Bilduren aldeko botoekin eta EAJren aurkakoekin onartu zen mozio hura. EAJk kontra bozkatu zuen, Baigerarekin elkartutakoan alderdiak elkarteko kideei egindako ekarpenak "ez zituztelako kontuan hartu eta ez zutelako eman biderik adostasunera iristeko".



Laxaro Azkune Baigera jubilatuen elkarteko kideak azaldu duenez, medikurik gabe dauden herritarrak "ziurgabetasun egoeran" daude. "Lehen konfiantza ematen zioten beren familia medikuak, eta orain falta dute konfiantzazko pertsona hori". Horrek Osakidetzaren zerbitzua "asko eskasten" duela uste du hark. Gainera, Azpeitiko anbulatorioan hainbat espezialista falta direla gogorarazi du. Egoera horren aurrean, herritar ugari aseguru pribatuak egiten ari direla nabarmendu du, eta horrek herritarren artean desberdintasunak sortzen dituela erantsi: "Dirua daukanak egingo du, eta ez daukanak izorratu egin beharko du, beti bezala".

Datu bat jarri du mahai gainean Baigera elkarteko kideak: "Munduko Osasun Erakundeak dio lehen arretan Osakidetzaren aurrekontuaren %25 inbertitu behar litzatekeela, eta hemen %14 inbertitzen da". Egoera horren aurrean, erantzukizuna Jaurlaritzarena dela uste du Azkunek. "Baina haiek ez badute ezer egiten, gizarteak mugitu beharko du", dio.

**UDAN
ANBULATORIOA ITXI
BEHARKO OTE ZUTEN
BELDUR ZIREN
ARDURADUNAK**



"Aguantatu eta aguantatu ari gara, eta etor daitekeenaren beldurrez gaude"

AZPEITIKO ANBULATORIOKO LANGILEA

"Azpeitiko anbulatorioko langileak azarotik ari gara egoera hau sufritzen; ez da gaur goizeko kontua. Azaroan izan genituen medikuen lehen bajak, eta gaur egun, hiru familia mediku gutxiagorekin moldatu beharra dugu. Horrek sekulako esfortzua eta antolaketa eskatzen ditu pazienteen beharrei erantzun ahal izateko. Oso nekatuta gaude, hainbeste hilabete pasatu diren arren, ez digutelako baliabiderik jartzen. Osasun zentroko eguneroko lana aurrera atera ahal izateko, larrialdietako medikuak etortzen dira errefortzu moduan; haiek betetzen dute falta diren medikuen hutsunea, ordu estrak sartuta.

Asistentzia aldetik ez dago arazorik. Izan ere, herritar guztiak artatzen ditugu Azpeitiko osasun zentroan; inor ez dugu uzten artatu gabe. Kontua da 4.500 herritar familia medikurik gabe daudela eta horien jarraipena egitea zaila bilakatu dela. Adibidez, azarotik familia medikurik gabe daude batzuk, eta posible da herritar horiek sei-zazpi mediku ezberdinek artatu izana denbora tarte honetan. Gaixotasun kronikoak dituztenen eta adinekoen kasuan, ordea, garrantzitsua da beti pertsona berak artatzea, jarraipena egin ahal izateko. Kasu askotan, hori galdu egin da.

Zazpi langile ari dira une honetan anbulatorioan lanean, eta horiekin, osasun zentroko egunerokoaz gain, hainbat zerbitzuri ematen diogu erantzuna. Batetik, San Martin egoitzako medikua Osakidetzakoa da –hori litzateke beste lanaldi erdia–, eta hura falta denean edo hark oporrak hartzen dituenean, Azpeitiko osasun zentroko medikuak joaten dira hara. Gainera, bost komentutan zerbitzua ematen dugu: Loiolan, Sierbetan, Jesus Marietan, Olatzen eta Frantziskanetan.

Gogoan izan behar dugu pandemia batetik gatozela; Azpeitian gogorra izan da, gainera, izurria. Oporretara ere beldurtuta goaz, ez dakigulako bueltan zer gertatuko den. Norbaitek gaixo baimena hartuko balu, zer? Beste langile bat gutxiago? Gerta daiteke norbait haurdun gelditzea nahiz medikuren batek min hartzea edo COVID-19 gaitza harrapatzea. Egia esan, egoera honek sortzen duen neke mentala

eta estresa tarteko, ez litzateke harritzekoa izango norbait gaixotzea. Aguantatu eta aguantatu ari gara, eta etor daitekeenaren beldurrez gaude.

Jendearekin lan egiten dugu guk, ez torlojuekin. Eta hainbesteko lan karga izanda, lanean ondo ari ez garen sentipena dugu. Ordu gehiago sartzen ari gara, eta gainera, gau askotan laneko kontuei bueltaka esnatzen gara. Geure onetik irtenda eta urduri gaude, eta sarritan, ingurukoekin ordaintzen dugu, gutxien merezi dutenekin. Hari batetik zintzilik gauden sentipena dugu, eta iruditzen zaigu egun batetik bestera "pum!" egingo dugula.

Egoera honen aurrean, hitzordua eskatzerakoan, filtratze lana egitea erabaki du Osakidetzak, pazienteak ahalik eta profesional egokienarengana bideratzeko. Jendeari iruditzen zaio harrerako langileek gehiegi galdetzen dutela, baina hori profesionali lana arintzeko modu bat da. Baliabide gutxi dugunez, ondo bideratu behar dira pazienteak, medikuei lan karga ahalik eta gehien kentzeko. Harrerakoan lana da gauza horiek galdetzea, jendeari ondo iruditzen ez zaion arren. Lehen ez zegoen harrerakoari azalpenik eman beharrik, eta herritarrak ez daude horretara ohituta; lehen zuzenean medikuarenera bideratzen zituzten, baina orain ezinezkoa da hori, falta direlako.

Zerk eragin duen egoera hau? Arrazoi asko egongo dira, baina faktore nagusia planifikazio falta izan da. Duela 15-20 urte eskua sartu behar zen leku batean ez dute sartu. Gauza jakina zen medikuak faltako zirela; izan ere, bazekiten osasun langileek zer adin duten eta urteotan jende pila bat erretiratuko zela. Osakidetzako langileen erdia baino gehiago 60 urte bueltakoak dira, kategoria guztietan. Orain alferrik da esatea medikurik ez dagoela. Orain arte nora begira egon dira?

Gizartea ere aldatu egin da urteotan. Lehen, medikuntza ikastea, etxetik gertuen zegoen lekuan hasten ziren lanean, baina oraingo gazteak munduari irekita daude, eta Europa guztian gutxien kobratzen den lekua Espainiako Estatua da, diferentziarekin.

Prestigioaren kontua ere aipatu nahiko nuke; familia medikuek ez daukate lehengo prestigiorik. Lehen arretan lan egiteak prestigio sozialik ez badauka, medikuntza ikasten dutenek beste espezialitate bat aukeratuko dute. Zaindu egin behar da hori, eta lehen arretan lan egitea erakargarri bilakatu. Izan ere, arazoan %90etik gora lehen arretan konpontzen dira.

Egoera honen aurrean, oso nekatuta gaude, eta haserre. Ez dago gure esku mediku gehiago ekartzea. Gure esku dagoena eguneroko lana da, eta hori ahalik eta ondoen egiten saiatzen gara. Baina kokoteraino gaude.

Goikoei gure kezka azaltzean, medikurik ez dagoela erantzuten digute. Esaten digute ez dagoela beraien esku egoera konpontzea, eta noren esku dago, orduan? Norbaitek egin beharko du zerbait".

"HAINBESTEKO LAN KARGA IZANDA, LANEAN ONDO ARI EZ GAREN SENTIPENA DUGU"

"GAUZA JAKINA ZEN MEDIKUAK FALTAKO ZIRELA. ORAIN ARTE NORA BEGIRA EGON DIRA?"



**"DENA PRIBATIZATZEN
ARI DIRA. JENDEA
ASEGURU PRIBATUAK
EGITEN ARI DA, BAINA
NIK EZ DUT EGINO"**

"Beti pertsona berak artatzea nahi dut, jarraipena eskatzen duen arazo bat dudalako"

BEGO AIZPURU, FAMILIA MEDIKURIK EZ DUEN HERRITAR BAT

"Bada denbora bat familia medikurik gabe gelditu nintzela, baina zera pentsatzen nuen: 'Ekarriko dute'. Dena den, denbora aurrera doa, eta egoerak bera izaten jarraitzen du. Bitarte horretan, mediku ezberdin ugari artatu naute; beren pazienteak ez ezik, besteenak ere ari dira artatzen horiek. Ordu pila bat sartzen ari dira, eta estresatuta daude. 'Hau ez da posible', pentsatzen dut, eta horregatik, Uztariaren erredakziora deitu nuen egoeraren berri emateko asmoz. Izan ere, medikuak ondo ez badaude, gu ere ez gaituzte ondo zainduko.

Egun batean, mediku bati azaldu nion zein den nire osasun egoera, eta hurrengo kontsulta ere harekin izatea nahi nuen. Askotan berak ematen dit zuzenean txanda, nahiz eta ez naizen bere pazientea. Niri berez berdin dit batek edo besteak artatzea, baina beti pertsona berak egin dezan nahi dut, jarraipena eskatzen duen arazo bat dudalako. Medikuek ordenagailuan ikus dezakete nire historiala, baina ez da gauza bera. Gaitz kronikoak dituzten edo adin batetik gora duten herritar asko ni bezala sentituko direla pentsatzen dut. Medikuekin gauzak esateko konfiantza izatea oso garrantzitsua da, eta hori beti pertsona berak artatuta lortzen da. Hori ere galdu behar badugu, pentsa zertara iritsiko garen.

Okerrera egiten ari gara, gauza guztietan. Dena pribatizatzen ari dira. Jendea aseguru pribatuak egiten ari da, baina nik ez dut egingo; nik ordaindu ditut tasak osasun publiko duin bat izateko. Gainera, kontuan izan behar da jende askok ezin duela aseguru pribatua ordaindu.

Medikuak behar ditugu osasuna izan dezagun, mundu honetako ofizio garrantzitsuenetako bat da haiena. Beste gauza batzuk gabe bizi gaitzeko, baina osasunik gabe ez. Zer ari da gertatzen? 4.500 herritar familia mediku gabe gaude, eta hori ezin da onartu". ■■■■

Koh Tao
 OSAGARRIAK +
 PIERCING ESTUDIOA
 Jose de Artime, 14- 20730 AZPEITIA ☎ 629 738758

LAU
 NEUMATIKOAK
 PNEUMATIKOAK - MEKANIKA AZKARRA
 943 053056 Lezio kalea 20, 20730 Azpeitia

**JARRI HEMEN
 ZURE IRAGARKIA!**

Bizitzeko
GIPUZKOA
 5 PERTSONA BIZIPEN
 BIZITZAZU!


NON DAGO UZTARRIA?



Lehiaketan parte hartzeko aurkitu aldizkarian Uztarria pertsonaia eta bidali erantzuna lehiaketakuztarria@gmail.com e-postara uztailaren 18a baino lehen. Bazkidearen izena eta telefono zenbakia zehaztu behar dira.

Saria: Kutxillo urdaitegiaren produktu sorta.

Ekaineko Uztarria aldizkarian Uztarria pertsonaia non ezkatututa zegoen asmatu behar zen: 45. orrialdean zegoen ezkatututa, eta Irati Etxeberria bazkidea izan da irabazlea.



**URDAIAZPIKO,
 HESTEBETEAk eta GAZTAK**

Etxeke berezitasuna:
EZKUR URDAIAZPIKO IBERIKOIA



Eñaut: 656 79 14 19
 Oier: 618 24 01 73
kutxillo@gmail.com
 Damazo Azkue 6
 AZPEITIA

"Argazkilari gastronomikoa izatea nahiko nuke"

JULEN GALARRAGA SUKALDARIA

Sukaldaria da ikasketaz eta ogibidez azpeitiarra. Jakiak prestatzea nahiz dastatzea du gustuko, probatzea ere bai, eta ikasteko grina ikaragarria du. Badu eskarmentua, baita ametsa ere, eta horiek egia bihurtzeko bidea urratu nahi du.

Testua: **Julene Frantzesena**. Argazkiak: **Julen Galarraga**. Marrazkia: **Olatz Alkorta**.

Neumonia batek eraman zuen Julen Galarraga (Azpeitia, 1999) sukaldeko barrunbeetara. 5 urte besterik ez zituen, eta hamabost eguneko etxealdiak balio izan zion ordurako piztuta zuen sukaldearekiko jakin-mina areagotzeko: "Amari kroketak-eta egiten laguntzen hasi nintzen". Berarentzat ezezaguna zen mundu hartan arakatzeko hasi zen, probatzen, eta orduz geroztik ez du alde batera utzi egiteko hori; ez du horretarako asmorik ere. "Deskonektatzeko balio dit sukaldaritzak, gustura aritzen bainaiz horretan. Uneotan dena da niretzat, zaletasuna eta jaten ematen didana".

Galarragak azaldu duenez, 16 urterako bazekien sukaldaritzak ikasketak egin nahi zituela, eta garaia iristean, halaxe egin zuen: aurrena, Sukaldaritzak eta Gastronomiaren izeneko erdi mailako gradua egin zuen Donostiako Cebanc lanbide heziketa eskolan, eta ondoren, goi mailako gradua. "Banekien unibertsitate ikasketak eginda baino etekin handiagoa aterako niola lanbide heziketako graduari; izan ere, sukaldaritzaren oinarrietatik hasi genituen ikasketak eta oso praktikoak ziren saioak". Ikasketa haiek medio, Italiako jatetxe batean praktikaldia egiteko aukera ere izan zuen, eta ordutik urteak pasatu badira ere, irribarrea ateratzen zaio hango esperientziak hitz egitean. "Pasta eta risottoetan espezializatutako jatetxe batean egin nuen lan. Asko ikasi nuen, gustura aritu nintzen eta oso esperientzia ona izan zen. Familia negozio haren jabeek etxean bezala sentiarazi

ninduten". Badu beste mugarri bat ere: ikasketak hasi zituen urtean i-SuperChef lehiaketa irabazi zuen. "Epaimahaiari gustatu egin zitzaion prestatu nuen platera; ez dakit gaztea nintzelako edo goxoa zegoelako izan zen, baina... Esperientzia oso polita izan zen, motibatzen balio izan zidan".


Orduz geroztik, ez da geldirik egon; ikasteko goseak batera eta bestera eraman du, bateko eta besteko aritu da probatzen, sukaldari ibilbidean hazteko xedez. "Jatetxe batzuetan aritu naiz lanean, eta boluntario lanak ere egindakoa naiz. Izan ere, ikusi nuen haragiei eta arrainei dagokienez asko nuela ikasteko, eta hala neure burua eskaini nuen harategi eta arraindegi banatan aritzeko. Oso garrantzitsua da txahal erdi bat harategira nola iristen den ikustea, pieza bakoitza nola atera behar den ikustea... Arrainekin gauza bera, asko eta askotarikoak baitaude".

Izan zuen bide berri bat probatzeko aukera ere: Nafarroako Irrisarri Land parkean aritu zen lanean, eta hara joandako familia baten sukaldari pertsonala izan zen aste batzuetan. "Esperientzia ona edo txarra izan zitekeen, baina probatzea erabaki nuen, eta egia esan, etxerako modukoa zen familia hura".

Ikasteko grina

Urte batzuk badira sukaldeetan esperientzia hartzen hasi zela, baina ikasteko "beti" dagoela zerbait uste du. "Zure bizipenetatik ez ezik, lankideen eskutik ere asko ikasten da. Beti dago irakatsiko duzun edo irakatsiko dituzten zerbait. Orain, adibidez, Da tabernan egiten dut lan,





hango sukalde arduraduna naiz. Erronka izan da eta asko ari naiz ikasten; izan ere, orain arte ez dut halako kargurik izan".

Zuzen samarra dela ere aitortu du, eta horretan ikaste prozesuak eragina izan duela dio. "Graduko lehen azterketan piper beteak egin behar izan nituen, eta pentsa zer-nola aritu nintzen, ez bainuen platera jartzeko lekurik ere lan mahaietan. Txipa aldatu nuen, eta labana, sukaldeko ohola, zapi bat eta zakarretarako bol bat erabiltzen hasi nintzen. Bigarren azterketan zirujaua ematen nuela esan zidan irakasleak", azaldu du barrez. Tresna gutxi batzuekin "izugarriak" egin daitezkeela dio: "Askotak makinak-eta erosten ditugu sukalderako, gero hautsa hartzen uzteko".

Ikasteko grina ez zaio itzali urteotan Galarragari, eta esperimintatzea ere gustatzen zaio, baina "tamainan", beti ere. "Jatetxe batzuetan filosofia sukaldea baino garrantzitsuagoa da dagoeneko. Sukaldari batzuek hartu duten bidea... Tradizioa mantentzearen aldekoa naiz ni. Izan ere, ikusi ditut potajea prestatzeko esan eta nondik hasi ez zekiten sukaldariak. Pena ematen du horrek, baina Masterchef programa ikusten duzu, gaur egungo sukaldaritzaren liburuak irakurtzen dituzu, eta dena goi mailako sukaldaritzaren da. Halakoetan



jabetzen zara oinarrizkoa ikasi behar dela, hankak lurrean izan behar dituzula".

Sukalde batean falta ezin diren elikagaiez ere aritu da, bere gustuen arabera. "Espezia zalea naiz, eta asko erabiltzen ditut, adibidez, gatza, piperbeltza, baratxuri eta tipula hautsa, piperrautsa... Bestalde, edozein jaki prestatzeko oinarrizkoak dira patata, tipula, baratxuria, porrua eta azenarioa; joko handia ematen dute horiek". Oso-oso modan dauden bi elikagai ere aipatu ditu, nahiz eta haren ustez "gainbaloratuta" dauden. "Trufa beti dago modan, baina nire ustez, hori eta kabierra, adibidez, gainbaloratuta daude". Alde ederrekoa iruditzen zaio abakondodun arroza. "Familiakoei

Julen Galarraga

- **Adina:** 22 urte.
- **Ikasketak:** Sukaldaritzaren eta Gastronomiaren gradu ertaina eta goi mailakoa.
- **Lanbidea:** Sukaldaria.
- **Sukaldaria ez banintz...** Argazkilaria gastronomikoa.
- **Lanetik ateratzearen gogoko dut...** Dronarekin ibiltzea.



eta lagunei prestatu izan diet, eta... Arrozei maitasun berezia diet, Kataluniako eta Italiako jatetxe banatan horiek prestatzen aritu nintzelako".

Eta aipatu gabe ezin utzi sukaldaritzan aritzen diren langileen egoera, lan mundu horretan ere hobetzekorik badela uste baitu. "Gauzak aldatu dira, onerako, bai ordutegi aldetik, bai lantaldeei dagokienez, baina oraindik ere hobetu daitezke lan baldintzak. Izan ere, sukaldeko lana gogorra da oso, eta ez dago behar adina baloratuta". Gainera, ogibideak, oro har, lan eskerga handia eskatzeaz gain, inguruko kontrako korrontean dabilela sumatzen du sukaldariak. "Daukadan adinarekin lagunerekin alde erantzira ibiltzen naiz. Bizitza bakarra da, eta gauzak probatzea nahi dut. Chef pertsonalen mundua ezagutzea nahiko nuke, jakin-mina piztuta

baitaukat. Ez nuke bizitza osoan horretan aritu nahi, baina...".

Argazkilaritza eta gastronomia

Jaki gozoak eta gaziak, biak ditu atsegin, eta etxean goi mailako sukaldaritza praktikatzea gustatzen zaio. "Ontziteriaren friki bat naiz; sukalderako tresnekin, jakatxoekin eta abarrekin betetako armairu handi bat daukat etxean. Oraino ez dut aukerarik izan, baina gustatuko litzaidake Michelin izarren bat duen jatetxeren batean lan egitea; handik ere zerbait positiboa aterako nuke".

Jakiak prestatzea asko gustatzen zaio, eta probatzea beste hainbeste edo gehiago. Askotariko jatetxeak probatu ditu, baina "gorengo mailako" jatetxeetara joateko aukerarik ez du izan. "Ez da erraza otordu baten trukean hainbeste ordaintzeko prest dagoen eta horietara lagunduko dizun jendea aurkitzea. Jendeak ez du ulertzen Michelin izarra duen jatetxe bateko otordu bat 150-200 euro ordaintzea. Dena hartu behar da kontuan, ordea; plater bakoitzak zer lan duen, ontziek zenbat balio duten, zer zerbitzu ematen duten, zenbat proba egin dituzten zerbait prestatzerako, produktuak nolakoak diren...".

Etorkizunaz galdetuta, gauzak argi ditu. "Sukaldaritza ikasi baduzu, badirudi jatetxe batean egin behar duzula lan, eta ahal den heinean gora egin, Michelin izarra duen jatetxe batean lan egin ostean zeure jatetxea zabaltzeko. Ni ez nau horrek betetzen, ordea; ez zait hori gustatzen. Erakargarriagoa iruditzen zait neure marka sortzea; zerbait desberdina egin nahiko nuke, noski, ostalaritzarekin zerikusia duena".

Idea bat badarabil buruan: sukaldaritzatik urrundu gabe, eta bere bi pasioak uztartuta, beste urrats bat egin nahi du, edo hori du jomugan. "Argazkilari gastronomikoa izatea nahiko nuke. Pixkanaka, horretan ere trebatu nahi dut; zer hoberik argazkilari gastronomikoa izan nahi duen sukaldari bat baino?". ■■■

ASKE MAITE bertako
ASKE BIZI! igogailuek | ascensores
www.bertako.eus GIPUZKOA 943 903 450




DOMINOAN Bete itozu lauki zuriak
domino-zati honek zentzua izan dezan.



Elementu hauetatik guztietatik bat zortzi aldiz
ogeri da eta beste elementu bat soilik behin.
Zein dira? Eta zenbat lanperna daude?

ItsasKi Festa



Hemen buru bakoitzak zorri bana du eta hizketan
ari dira, baina zer diate? Erabili hizki-marrazki
alfabetoa eta erraz ulertuko duzu.

ZORRI HIZTUNAK




Itzala

Hondarretan gazteluok egitea bai dibertigarria! Zein da Markelen itzal zuzena?



Badonk 13

Aurki itzazu bi itsasontzien artean dauden 13 aldeak. Bestalde, itsaspea margotu beharko zenuke, eta marmokak eta arrain batzuk ere marraztu, horrela triste somar dogo eta.



Soluzioak ikusteko:
www.plazanbazan.eus/

IZAN IRAKUR ZALE!



EGIN BAZKIDE ETA %30 EKO
DESKONTUA IZANGO DUZU

bazkide@ukl.eus • 943-81 38 41

UZTARRIA

LAGUNTZALEA:



Opakidea Foru-Iturria



Euskaldun, pedigridun



IMANOL AMIANO

Ez ote zait azpeitiar bat tokatuko!". Hori da egunotan Donostiako Luberri institutuan C1eko ahozko azterketa egin behar duten ez bat, ez biren desioa, ia erregua. Ez zaituztete gorroto, ez, baina ez zaituztete ulertzen. Hitzez hitz. Azpeitiarrez hitz egiten duzuelako, izan azterketa ofizial baten, izan Korralen patata tortilla jaten. Zerbait anekdotikotzat hartuko du norbaitek, sinpatikotzat – galdetu beharko litzaioke azterketari irundar hari parekatzeak egin dion graziaz–; harrotu ere egingo da, beharbada, bat baino gehiago.

Ez da hilabete azpeitiar gazte batzuek ETBren *Zurekin bat* izeneko programa-lehiaketan parte hartu zutela. Laukotea, *eske* eta *porke* batzuen gorabeheran, azpeitiar *jatorrean* aritzea deigarria egin zitzaidan. Anekdotikoa, sinpatikoa... eta kezagarria. Ez baita, inondik inora, zerbait berria: unibertsitatean aurkezpenak azkoitiarrez entzun ditut; Gazteako esatariek beren euskalkian jarduten dute; futbolariak adierazpenak, areago, *sukalkian*...

Ez naiz soziolinguista, baina susmoa dut Ibon Sarasolak

jatorkeria deitzen dion kontu hau guztia ezjakintasunetik etor litekeela. Nire ustez, soilik erregistro informal hori erabiltzen duten gazteak ez dira konturatzen, hizkuntzari laguntzen ari zataizkiolakoan, egiten dioten kalteaz. Antonio de Nebrijak 1492an argitaratu zuen gaztelaniazko lehenbiziko gramatika; inork gutxi eztabaidatuko du fruitua mundu guztira –eta, bereziki, gurera– eman eta zabaltzeko *gaztelania batuaren* baliagarritasunaz. Urriari 54 urte beteko dira Arantzazun elkartu zen kuadrillak hizkuntzaren biziraupenerako ezinbestekoa zen lanari ekin zionetik. Sukaldean itzaltzen ari zen hizkuntza hezkuntzan, administrazioan, komunikabideetan... edozein esparru formalean erabilgarria egingo zitzaiguna bilakatzeko.

**'EUSKALDUN,
FEDEDUN' IZATETIK
'EUSKALDUN,
PEDIGRIDUN' IZATERA
PASATU GARA**

Bada, orain, badira mende erdiko lan eskerga hori arbuiatzen dutenak, eta, horren aurrean, euskalkien defentsa sutsua egiten dutenak; bien arteko hautua egin beharko balitz bezala; agian, maketo iraultzaileak dagokien lekuan uzteko, benetako euskaldunak zein diren argi uzteko. Lehengo lepotik burua: lekeitiarrekin hitz egiteko, gaztelania jatorrean. Hazparnekoekin hitz egiteko... Ba ez dugu hitz egingo, eta listo. *Euskaldun, fededun* izatetik *euskaldun, pedigridun* izatera pasatu gara.

Gure aita zenak –hura bai euskaldun, fededun– sekulako joera zuen bere hizkera moldatzeko aurrean zuenaren arabera, eta nik ere bai (abilidade gutxiagorekin, ziurrenik); konturatu gabe jotzen dut batura, *batuantzera*. Zer egingo diogu, ba. Baina etxeokoen, lagunekin Korralen patata tortilla jaten, hor bai, sukalkian aritzen naiz –*eske* eta *porke* eta guzti, tamalez–. Eta toka. Eta noka. Zer nahi duk, mediku ona ala euskalduna? Zer nahiago dun, euskara batua ala euskalkia? Zer nahiago duzu, euskara ala euskara? ■■■

Musikaren bidean, batera

TESTUA: ELENA MARGÜELLO

ARGAZKIAK: ELENA MARGÜELLO ETA
UTZITAKOAK

Gaztetan ekin zioten musikaren bideari Pello Arribasek, Joseba Izagirrek, Aritz Unanuek eta Aitzol Etxanizek, eta ordutik, elkarrekin edota beste kide batzuekin, hainbat taldetan aritu izan dira. Segabathor, Arantzetan, Vostok 108 edota Izei dira elkarrekin eraiki dituzten taldeak, eta urteetan hainbat bizipen eta anekdota batu dituzte metal doinuak sortu bitartean. Musikaren aitzakian, hainbat txoko ezagutu eta oroitzapen ederrak bildu dituzte bizitako esperientzien bueltan, gaur arte.

Laukote horrek berak osatzen du orain dela sei urte sortutako Izei musika taldea. Sasoi hartan, musika beren bizitzetan "stand by egoeran" zegoela dio Arribasek, eta elkarrekin egoteko "aitzakia" izan zela berriro akordeen bueltan gelditzen hastea. Hasieran, Arribas eta Unanue hasi ziren elkartzen, baina berehala ohartu ziren "bi bakarrik" izateak "asko mugatzen" zuela dinamika hura. Hainbat pertsonekin egin zuten taldea osatzeko saiakera, eta azkenean, gertuko pertsona bat batu zen taldera: Izagirre.

"Taldeak martxa ona izan zezan, bizimodu antzekoa izatea eta lagunartean egotea nahi genuen. Joseba, Pello eta ni beti moldatu izan gara ondo; elkar oso ondo ezagutzen dugu", azaldu du Unanuek. Izan ere, gaztetatik hainbat taldetan elkarrekin aritutakoak dira hiruak. Etxaniz, berriz, Old Bridge diskoa grabatzen ari zirela ezagutu zuten; baxua jotzen zuen pertsona baten bila ari zen hirukotea, eta horrela animatu zen laugarren hori Izei taldeko partaide izatera.

Behin taldeari forma emanda, gaur egun, asteartero gelditzen dira Zubi Zahar lokalean entseatzeko; bi orduko saioa egiten dute han. "Denbora gutxi" dela diote, baina bi ordu horietan "dena" ematen dutela adierazi dute. "Niretzako, terapia moduko zerbait da entseatzeko momentua", esan du Izagirrek.

Ia hogeitabi abesti ditu Izei taldeak, eta nahiz eta "zaila" egiten zaien "etiketak" jartzea, beren musika metal estiloaren

**URTEETAN HAINBAT
BIZIPEN ETA ANEKDOTA
BATU DITUZTE METAL
DOINUAK SORTU
BITARTEAN**

barruan kokatzen dela uste dute: "Hala ere, gure musika melodikoa izan dadin saiatzen gara". Zertan inspiratzen diren galdetuta, Iron Maiden, Metallica, Su ta Gar, Alter Bridge, Breaking Benjamin, Latzen edota Berri Txarrak taldeak entzuten dituztela erantzun dute, baina pop musika ere entzuten dutela aitortu dute, izan Izaro edota Izaki Gardenak. "Erdaraz kantatuko bagenu, Heroes del Silencio edo Sober taldeen antza izango genuke", ziurtatu du Unanuek.

Umorez kontatu dute taldearen izena nondik datorren. Egun batean, Izagirre zuhaitzei buruzko zerbait kontatzen ari zela, "izei" hitza aipatu zuen, eta taldearentzat izen egokia izan zitekeela pentsatu zuen Unanuek: "Izen polita iruditu zitzaidan, eta besteei ez zitzaion ezer gehiago bururatu", azaldu du barrez.

Izenarena ez da barrez kontatzen duten anekdota bakarra. Izan ere, Arribasek, Izagirrek eta Unanuek hamabi urte egin zituzten aurrez Segabathor taldean, eta talde haren izenak ere eman zuten zeresana. Beste taldekide batek proposatu zuen izen hura, eta gainerako taldekideen erantzunak honako hauek izan



Joseba Izagirre, Aitzol Etxaniz, Pello Arribas eta Aritz Unanue Izei taldeko kideak. IZEI

ziren, besteak beste: "Hori nola jarriko diogu ba" edota "hori oso zatarra da". Izena erabakitzeke zirela, Izagirreri elkarrizketa bat egin zioten, eta elkarrizketatzaileak taldearen izenez galdetu zionean, taldeak Segabathor izena zuela erantzun zuen hark: "Lokalera etorri zenean eta hori kontatu zuenean, taldeak Segabathor izena eduki behar zuela erabaki genuen", gogoratu du Unanuek irribarrez.

1998an eman zuten lehenengo kontzertua Segabathor taldearekin, Loiolako San Jose festetan, Xanadu tabernan. Lehen kontzertu hartara "jende dezente" bertaratu zela oroitu dute. "Garai hartan, jende asko

mugitzen zen Segabathor taldearen bueltan; gure lagunak-eta beti etortzen ziren kontzertuetara. Garai polita izan zen", kontatu du Izagirrek.

Xanadutik Kubara

Herrian bertan kontzertuak emateaz gain, urruneko lurralde ere zapaldu zituzten talde hartako kideek. Segabathor taldeko kide batek Kubara bidaiatu zuen 2004an, lagun batzuk egin zituen han, eta Azpeitiara itzuli zenean, hurrengo urtean Kuban kontzertua eskainiko zutela esan zien taldekideei. Izagirrek dioenez, "inork" ez zion kasurik egin. Denbora batera, ordea, Kubako jaialdi batean parte hartzeko gonbidapena iritsi

zitzaien Segabathorrekoiei, eta "harrituta" gelditu baziren ere, guztiak "baietz" esan eta hara joan ziren 2005. urtean.

Astebete egin zuten Kuban, eta zazpi egun haietan "rock izarrak bezala" sentitu zirela kontatu du Unanuek: "Segabathor ez zen izan behin ere talde ezaguna. Lehiaketaren bat-edo irabazi genuen, baina sekula ez genuen arrakastarik eduki". Kuban, ordea, bestelakoa izan zen musikariaren esperientzia. "Garai hartan ez zen inor joaten Kubara, diru asko gastatu behar zelako han kontzertu bat emateagatik. Dena den, joaten zirenak besoak zabalik hartzen zituzten", gogoratu du Unanuek. Audioslave taldearen



Izei musika taldearen nahiz aurrez izan dituzten taldeen irudiak. ELENA MARGÜELLO ETA IZEI

ondoren igo ziren taula gainera, eta oraindik oroitzen dira Arribasek eszenatokian autografo bat firmatu zuela edota jendea azpeitiarrekin trago bat hartzera beren hotelera gerturatu zela. Kubakoa dute "oroitzapen ederrenetarikoa bat".

Senperen, Baionan, Oñatin, Azpeitian, Azkoitian, Zestoan, Sorraluzen, Bilbon, Eibarren nahiz Donostian, hainbat festatan edota gaztetxetan eman zituzten kontzertuak Segabathorrekin. Arribasen hitzetan, ez zuten "sekulako osperik" izan, baina taldea mugitzen zen munduan "nahiko ezagunak" zirela uste du. Hiru disko kaleratu zituen taldeak.

Hala ere, talde hark badu oraindik ere *hit* moduko kanta bat: 1999an grabatu zuten Azkoitikiko Andramari jaietakoa. Festak hasi baino astebate lehenago kantaren kopiak atera eta tabernaz taberna banatu zituzten CDak: "Abestia atera genuen lehenengo urte hartan bost kantatik behin gurea entzuten zen tabernetan; arrakasta izan genuen", gogoratzen dute zorientasunez taldekideek.

Segabathor taldea "itzaltzen" joan zen pixkanaka, eta Arantzetan izan zen elkarrekin sortu zuten hurrengo taldea. Proiektu akustikoa izan zen hura, eta bertsioak eta taldeak sortutako kantak jotzen zituzten. Aurrerago, berriz, Vostok 108 taldean hasi ziren Arribas eta Unanue.

Arribasen esanetan, Vostok 108 taldearekin "inbertsio handia" egin zuten, "estatu mailan" jardun nahi baitzuten. "Furgetan Espainia zeharkatzea tokatu zitzaigun talde harekin, eta horretara animatu ginenen artean osatu genuen taldea", esan du Unanuek. Malagan, Bartzelonan edota Madrilen igo ziren oholtzara, eta asteburu batean hiru kontzertu jotzera iritsi ziren. "Presio handiagoa" zutela gogoratzen du Arribasek: "'Kontzertuak eman behar ditugu asteburuan: bazatoz ala ez?'. Horrela funtzionatzen genuen".

Ekinez ikasita

Izagirrek, Unanuek eta Arribasek beren kasa ikasi zuten musikaz dakiten guztia. Izagirrek dionez, musika

"asko" gustatzen zitzaion, eta gaztea zela gitarra jotzen zuen lagun bat bazuenez, hala "katigatu" zen musikara. Unanuek ere gogoan du nola hasi zen baxuarekin lehenengo urratsak ematen: "Baxua, kasete bat eta liburu bat erosi nituen. Lehenengo entsegura joan nintzenean ez nekien ezer. Koadernoan zenbakiak hartu nituen apuntetxo batzuk, eta hurrengo asterako haietatik ikasten nituen kantak".

Ekinez, hainbat entsegu eginez eta beste hainbeste kontzertu emanez, eszenatokiz eszenatoki egin dute bidea Arribasek, Izagirrek, Unanuek eta Etxanizek, eta aurrera begira "irteten dena", baina beren "mailan" egingo dutela azaldu dute: "Kontzerturen bat emateko aukera baldin badugu eta ondo badatorkigu, eman egingo dugu, eta bestela, ez gara konplikatuko", azaldu du Arribasek.

Plazaratu berri duten diskoarekin oso gustura dago Izei taldea osatzen duen laukotea. Are gehiago, Izagirreren ustez, orain arteko "ederrena" da kaleratu berri duten lana. ■■■

Berriak zahar



IONE GURRUTXAGA

Amaitu da ekaina, eta, aurten ere, zaharrak berri: hustu dira ikasgelak, isildu korridoreak, agurtu ditugu gure txikirik handienak, eta, tristura handiz, baita lankideren bat ere. Azkenean, boligrafo gorriek hartu dute merezitako atsedena, eta, haiekin batera, baita ikasle eta irakasleek ere.

Aurten ere, inguruko trufek hasiko dituzte elkarrizketa asko eta asko: "Urte guztian lanik egin ez, eta orain oporretan!". Ea nor den gai oporrak eman eta ez dituela egingo esateko... Dena den, behingoagatik, inork ez du zalantzan jarriko ikasleek ongi irabazia daukatela bi hilabetez burua liburutatik altxatzeko eskubidea. Gaitz erdi, bai baitirudi gizarte honen gaitz guztien Pandoraren kutxa eurek nahieran irekitzen dutela: gaixotasun kardiobaskularrek gora egin dutela? Normala, gazteek geroz eta azukre gehiago kontsumitzen baitute. Irakurzaletasunak behera egin duela? Jakina, umetan Teoren marrazkiak bakarrik ikusi nahi izaten baitituzte. Kutsadura azken mendeetako okerrera dela? Nola ez, gazteek gurasoak autoarekin harat-honat ibiltzera behartzen baitituzte.

Ori honetan murgiltzea erabaki duzun horrek nabaritu

duzu, honezkero, adibide horiek muturreraino (eta ia absurdoraino) jota ekarri ditudala, baina ekarri gogora beste kasu batzuk, zeinetan, hausnarketa handirik gabe, halaxe jokutzen den: zer gertatzen da euskararen erabilerak behera egiten duenean? Nor izaten da erantzule? Oraindik ez zait egokitu entzuterik normala dela gazteek exotikoa zaien horretara jotzea eta helduoi dagokigula bidea urratzea, norabidea markatzea, eta gure bidean jarrai dezaten irakastea. Errazagoa baita lagunartean gazteleraz hitz eta pitz aritu, eta gazteek euskara gero eta eskasagoa dutela esatea.

Gazte izateak berekin dakar arauen aurka egitea, agindu gisa datorrena zalantzan jartzea, gauzak beste modu batera egin nahi izatea. Eta hori hala dela zalantza duenak egin dezala atzera, bere nerabezarora, ea zer topatzen duen. Pandemia garaian argi geratu zen hori, kalera irteteko debekuak, elkartzeko mugak hausten harrapatzen zituzten gehienak

NONDIK LORTUKO DA AURRERA EGITEKO BERRIKUNTZA, ILUSIOA ETA INDARRA?

nortzuk ziren ikusita. Gainerako guztiak zintzo-zintzo, agintariak esandako guztia betez...

Kontuak kontu, arazoa beti besteengan ikusten dugu, nola ez, baina marka da, gero, nor bere zilborrari begira bizi den garaian autokritikak hain arrakasta txikia izatea! Hala ere, kritikak kritika, izan dezagun kontuan fokua gazteengan soilik jartzeak lortu nahi dugunaren kontrakoa lortzera eraman gaitzakeela: denean oker dabiltzala behin eta berriro errepikatuta, ez al dugu Pigmalion efektua eragiteko arriskua? Dena gaizki egiten dutela sinetsarazten badiegu, akabo, alderdi negatiboan gera daitezke, zein alderdi positibo aberatsa duten ahaztuta.

Baina okerragoa ere izan daiteke kontua: agian, gauzak gaizki egiten ari direla sinetsi, eta helduon mundu lau eta tristera igarotzeko pausoa eman nahiko dute. Eta non galduko dira orduan gaztetasunak bereak dituen imajinazioa, sormena eta bizipoza? Nondik lortuko da aurrera egiteko berrikuntza, ilusioa eta indarra?

Zaharrak berri izatea askotan ez da seinale ona izaten, baina, egindako urrats guztiak gaitzesteko joera horri helduz gero, garaia baino lehen bihurtuko ditugu berriak zahar. ■■■

EDUKIEN SORKUNTZA

• EDUKIEN SORKUNTZA EUSKARAZ ETA GAZTELANIAZ, HAINBAT EUSKARRITARAKO.

- COPYWRITING DIGITALA.
- EDUKIEN MARKETINA.
- STORYTELLING-AK.



GUKA       ZERBITZUAK



Lupulutik garagardora

Zaletasunez hasi ziren garagardoa egiten gaur egun Izar-Haitz markaren atzean ezkutatzen diren hiru kideak. Mota askotako garagardoak egiten dituzte, eta horiek lortu arteko prozesua gertutik ezagutzeko haien tailerrean izan da Uztarrria. Lupulu ona, errezeta egokia eta pausoak ondo jarraitzea ezinbestekoa da. Argazkiak eta testua: **Maialen Etxaniz**.



MAZERATZEA

Hainbat dira garagardoa egiteko jarraitu beharreko pausoak, eta horietan aurrena garagarra mazeratzea da. Honela azaldu dute Azpeitiko garagardogileek: "Hasteko, garagarra ur berotan mazeratzen jartzen dugu, almidoia gelatinizatzeke, maltari entzima naturalak ateratzeko eta almidoia azukre hatzigarri bihurtzeko. Ordubete inguruz izaten dugu mazeratzen, eta behin hori eginda, bertatik ateratzen den guztia filtrora pasatzen dugu".

LEHENGAIAK, OINARRIZKO

Askotariko garagardoak egiten dituzte Jon Agirrek, Jon de Marcosek eta Arkaitz Pie de Hierrok. Besteak beste, Pale Ale, Irish Red Ale, Porter, Ipa, American Ipa, Stout eta Izarraitz Ipa. Azpeitian ekoiztutako Pepo's Hops lupulua erabiltzen dute errezetan, baina baita kanpoko zertxobait ere. Dena den, Peporen lupulua ahalik eta gehien erabiltzea da haien nahia.



KLARIFIKAZIOA

Lortutako likidoa behin iragazkitik pasatuta, plumoiroa botatzen dute –ezkerreko argazkian ikusten den lapikora–, berriro iragazteko. "Plumoiak beste filtro bat dauka barrenean, eta bertan egiten da bigarren filtratua. Ondoren, dena berriro birzirkulatzen dugu, klarifikazioa egiteko. Modu horretan, garagarrek berak ere iragazki funtzioa egiten du", azaldu dute Izar-Haitzekoek.



LUPULUALDIAK

Iragazki guztiak pasatuta, garbiketa deritzona egiten dute, produktuaren dentsitate egokia lortzeko. Horretarako, pixkanaka-pixkanaka ur beroa gehitzen dute aurrez lortutako likidoaren eta garagarren ontzira, eta ondoren, guztia irakiten dute beste lapiko handi batean.

Behin lapikoa irakiten jarrita, lupulua botatzeko unea izaten da. Hiru lupulualdi egiten dituzte: "Aurrenak garraztasunean eragiten du, bigarrenak zaporean eta hirugarrenak aroman. Botatako lupulu motaren arabera, lapikoko garagardoak bateko edo besteko ezaugarriak hartzen ditu". Lupulualdia eta irakinaldia amaituta, garagardoa hozteko prozesuari ekiten diote.



HOZTU ETA BOTILATU

Hozte prozesua bero-trukagailu plaken bitartez egiten dute. "Irakiten edukitako garagardoa 20 gradutara jartzen dugu, fermentazioa ondo egiteko legamiak behar duen tenperaturara. Hamar egun inguruz izaten dugu garagardoa hartzigailuan legamiatzen. Prozesu hori amaitzean, garagardoa botilatzen hasten gara". Garagardoa botiletan sartu aurretik, botilak banan-banan desintoxikatzen dituzte.



GORPUTZA EMATEKO UNEA

Behin botilak desintoxikatuta, botilatzeari ekiten diote. "Botilatzerakoan, garagardoari destrosa botatzen diogu; azukrearen antzeko substantzia da, eta edariari bigarren hartxidura egiten laguntzen dio botilan bertan, hau da, gasa eta aparra ateratzen. Horrela, gorputza hartzen du garagardoak. Saldu aurretik, hiru edo lau aste uzten dugu botilan jalkitzen, errezetaren arabera".

IZARRAIZPEKO UZTA

Izar-Haitz garagardoa "bertakoa" da, hiru azpeitiarrek azaldu dutenez: "Garagardo artisauek gehienak nomadak dira, eta garagardo enpresa handietan egiten dute lan haien baliabideak erabilia; izan ere, askok ez dituzte beren ekoizpen bitartekoak. Guk bestelako apustua egin dugu, eta ekoizpen bitartekoak eskuratuta, garagardoa bertan eta bertako produktuekin egitea dugu xede". ■■■



SOKA LUZEAN



MIEL A. ELUSTONDO

Putza

Prostituitzea oso erraza gertatu zitzaidan, zeren betidanik jakin nuen besteren batena izango nintzela, izen bat bilatuko zidan komunitate batena, eta sarrera-irteerak arautuko zizkidatela, zer egin behar nuen eta nola egin aginduko zidan nagusi bat izango nuela, zer esan behar nuen eta zer ez, betidanik jakin dut txikiena izaten, sexiena, eta gainera, ordurako zerbitzari-lanean ari nintzen tabernan, ordurako alde batean putak zeuden eta bestean bezeroak, eta behar baino eskupeko handixeagoa ematen zidaten, nik ere behar baino arreta handixeagoa eskaintzearen ordainetan, eta poliki-poliki eta modurik naturalenean anbiguotasun halako bat sortu zen gure artean, zenbait hilabetez bezeroek erabili egin ninduten ni eta nik erabili egin nituen bezeroak, harik eta indarrez erakartzen ninduen hartaraxe joatea erabaki nuen arte, eta pentsatzen jarritz gero, iruditzen zait aukerarik ez nuela, ordurako puta izatera destinaturik nengoela, puta nintzela puta izan baino lehen ere, aski izan nuen *La Gazette* egunkari anglofonoa gainbegiratzea, hantxe azaldu zitzaidan escort agentzien orrialdea, aski izan nuen telefonoa hartu eta zerbaki bat markatzea, Montrealeko agentziarik

garrantzizkoenarena, iragarkiak zioenaren arabera agentziak escort onenak baizik ez zituen kontratatzen eta bezerorik onenak baizik ez zituen onartzen, alegia, han emakumerik gazteenak eta gizonik aberatsenak biltzen zirela, gizonen aberastasunak beti konbinatu izan du ongi emakumeen gaztetasunarekin, hori mundu guztiak daki, eta oso gaztea nintzenez, batere pentsatu gabe onartu ninduten, halako etxe batera eramanez ninduten eta gela batera sartu ninduten luzamendurik gabe, eta bospasei bezero errezibitu nituen bata bestearen atzetik, hasiberriak oso ospetsuak dira, esan zidaten, politik izan beharrik ez dute, gela hartan egun bat aski izan nuen zera hura bizi guztian egiten ari nintzen irudipena edukitzeko, bat-batean zahartu nintzen, baina diruketa ere irabazi nuen". (Nelly Arcan, *Putza*) ■

**GIZONEN
ABERASTASUNAK BETI
KONBINATU IZAN DU
ONDO EMAKUMEEN
GAZTETASUNAREKIN**

BOTEPRONTOAN



AINTZANE GARMENDIA

Gure kaiola

Beroak kolpatutako aste gorabeheratsuaren ostean heldu diogu asteburuari, eta gogotsu gaude astean zehar nekezago egin ditzakegun ekintzak egiteko. Eskuko telefonoari begiratu azkar bat emanda jaiki naiz gosaltzera. "Hara! Hauek orain ere egin dute nonbaitera bidaiia... eta badirudi beste hauek atzo izan zutela afaria...". Patxadaz gosalduta eta banoa motxila prestatzera.

Ohiko moduan, ezarritako ordurako iristeko zailtasunak izango ditudala ikusi eta Whatsapp bidez jakinarazi diet lagunei beranduxeago izango naizela. Besteen erantzuna berehalakoa izan da, eta audio zein ikonoen dantza bizia sentitu dut sakelakoan; haiek ere erlojuaren orratzekin borrokan dabiltza antza! Hau da marka, azkenezan presaka eta urduri hasi ez dugu ba egunerokotik deskonektatzeko eta lasaitzeko eginiko plana!

Elkarrekin inoiz baino konektatuago gauden garaiotan, eskuko telefonoaren dantzak markatu ohi du gure eguneroko jarduna, baina dantza saio ederra itogarri bilakatu liteke erritmoa neurtu ezean. Saia gaitezen udan telefonoaren dantza gutxitzen, gauden kaiolatik irteteko gure buruarekin zein ingurukoekin aurrez aurre gehiago gozatzen hasi beharrean gaude eta. ■



TiEN21 ESNAOLA

ZATOZ
DENDA BERRITUA
EZAGUTZERA!



Pablo VI, 3 · Tel.: 943-08 03 55 · esnaelek@outlook.com